


EAEn BIZITEGI BAZTERKETA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN INGURUKO AZTERLANA 2014



DATU AURRERAPENA
Martxoa 2015



EAEn BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA BIZI DUTEN PERTSONEN INGURUKO AZTERLANA
ESTUDIO SOBRE LA SITUACIÓN DE LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE EXCLUSIÓN RESIDENCIAL
GRAVE EN LA CAPV

Siis Centro de Documentación y Estudios
Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa
Fundación Eguía Careaga Fundazioa

Ikerketa honetan laguntzen dute:



Aurrerapenaren egilea:

Centro de Documentación y Estudios SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa
Fundación Eguía-Careaga

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK, AZTERLANAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA	3
1.1. Aurrekariak.....	3
1.2. Azterlanaren helburuak.....	4
1.3. Kontzeptu esparrua eta metodologia	4
2. BIZITEGI BAZTERKETA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN ZENBAKETAREN EMAITZAK.....	8
2.1. Gaua kalean igaro zuten pertsonak	8
2.1.1. Zenbat pertsonak egin zuten lo kalean urriaren 29tik 30erako gauean?	8
2.1.2. Emaizten bilakaera eta azterketa konparatiboa beste hiri batzuekin	13
2.2. Gizarte zerbitzuen aterpe baliabideak erabili zituzten pertsonak	14
2.2.1. Zenbat pertsonak jo zuten aterpe baliabideetara urriaren 29tik 30erako gauean?	14
2.2.2. Emaizten bilakaera	16
2.3. Datu globalak	16
3. BOLUNTARIOEN LANA	19
 I. ERANSKINA: Etxegabekoen eta bizitegi bazterketaren Europako tipologia.....	20
II. ERANSKINA: Kalez kale eginiko zenbaketaren emaitzak udalerrien arabera.....	22

1. AURREKARIAK, AZTERLANAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

1.1. Aurrekariak

Dokumentu honek EAEn bizitegi bazterketa larria pairatzen duten pertsonen buruzko datuak biltzen ditu; zehazki, urriaren 29tik 30erako gauean egin zen zenbaketaren lehen emaitzak. Zenbaketa s *gauak* izeneko esperientzia oinarritu zen (ingelesezko *shelter and street-night* esapidetik sortutako terminoa); hots, gure hirietan gero eta maizago egiten diren etxegabekoen gaueko errolda zenbaketetan. Ikerketa lan hauek laurogeigarren hamarkadaz geroztik egiten dira, munduko hiri handi askotan, eta kalean bizi diren –hitzaren adiera hertsian– edo aldi baterako babes bila aterpetxeetara jotzen duten pertsonak dituzte aztergai. Zalantzarik gabe, balio handiko tresnak dira, une jakin batean pertsona horiek zenbat diren eta zer ezaugarri dituzten jakiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2010. urtean hasi ziren honelako ikerketak egiten, eta, zehazki, azterlan honen aurrekari zuzenak Bilbon 2010eko ekainean eta Donostian 2011ko martxoan egin ziren zenbaketak dira; hurrengo kontaketa 2012ko urrian egin zen, EAEko hiru hiriburuetan, batera. Espainiako estatuari dagokionez, lehen azterlana Madrilan egin zen, 2006an, New Yorken erabilitako ereduari jarraiki. Orduz geroztik, hiri horretan ez ezik –gaurdaino zazpi zenbaketa egin dituen (2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2012 eta 2014)–, gaueko zenbaketak egin dira ere, antzeko metodologia erabilia, Bartzelonan (2008, 2011), Lleidan (2008), Zaragozan (2010, 2012 eta 2014) eta Sevillan (2010, 2011, 2012 eta 2013).

Azterlan honen berrikuntzetako bat, 2012an eginikoari dagokionez, zazpi udalerri gehiago hartu izana da, hiriburuez gainera (Bilbo, Donostia eta Gasteiz). Zazpi udalerri horietako bost Bizkaian daude (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) eta bana Araban eta Gipuzkoan (Laudio eta Irun, hurrenez hurren). Batera hartuta, hamar udalerri hauek EAEko 2014ko biztanleriaren % 52,8 dira.

Bestetik, 2012an bezala, ikerketa lan honetan, boluntarioez gainera (780 boluntariok lagundu dute), erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak), hirugarren sektoreak eta EUDELek ere parte hartu dute. Guztien ahaleginaren emaitza izan da.

1.2. Azterlanaren helburuak

Azterlanaren helburuak hauek dira:

- EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonak zenbatzea, erreferentziatzat harturik 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua, bi talde hauek bereizita:
 - Gau horretan zenbaketa egin zen hamar udalerrietan (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) kalean lo egin zuten pertsonak.
 - Gaua hiru lurraldeetako gizarte zerbitzu eta zentroetan igaro zuten pertsonak (bizitegi bazterketa pairatzen duten pertsonen laguntzen dieten zerbitzuak).
- Bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoera eta ezaugarriak ezagutzea eta aztertzea: egoera administratiboa, heziketa maila, jarduera eta diru sarrerak, gizarte eta familia harremanak, osasuna, droga kontsumoa, eta gizarte zerbitzu eta prestazioen erabilera, beharra eta balorazioa.

1.3. Kontzeptu esparrua eta metodologia

Ikerketa lan hau, EAEko hiriburuetan aurretik eginiko gaueko zenbaketak bezala, FEANTSA erakundeak Etxerik Gabeko Pertsonen Europako Behatokiarekin elkarlanean etxegabeen auziari lotuta garatu duen kontzeptu esparruan oinarritu da. Abiapuntu gisa, aipatzekoa da Dragana Avramov soziologoak egin zuen kontzeptu proposamena (Etxerik Gabeko Pertsonen Europako Behatokiako ikerketa koordinatzailea izan zen 1994 eta 1998 artean), zeinaren arabera etxe gabezia “era iraunkorrean bizitzeko leku egoki baten gabezia” litzatekeen; etxerik gabeko pertsonak, aldiz, “bizitzeko leku egoki bat izateko aukerarik ez duten pertsonak dira, bizileku hori mantendu ezin dutelako, zio ekonomiko edo gizarte arloko beste oztopo batzuegatik, edo era autonomoan bizitzeko zailtasunak izanik laguntza beharrean daudelako, laguntza hori egoitza batean bizi behar izatera heltzen ez bada ere”¹.

Zentzu zabalean formulatu zen definizio hori zehazteko, Etxerik Gabeko Pertsonen Europako Behatokia, 2000 erdialdean, bizitegi bazterketa pairatzen duten etxerik gabeko pertsonen tipologia lantzen hasi zen, arazo honi lotutako prebentzio eta laguntza politikak hobetu, bateratu eta koherentzia handiagoa erdiesteko (Cabrera eta Rubio, 2008). ETHOS (*European Typology of Homelessness and Housing Exclusion*) akronimoaz ezaguna den tipologia hau, 2005ean formulatua eta 2006an eta 2007an berrikusia, etxe gabekoen fenomeno konplexu eta aldakorra sailkatzeko eta kuantifikatzeko erabiltzen den nazioarteko erreferentzia nagusia da gaur egun.

ETHOS tipologiaren definizioa hiru gune edo “esparruz” eratutako etxean oinarritzen da (esparru fisikoa, gizarte esparrua eta lege esparrua). Hori horrela, zer neurritan egiten duten huts esparru horiek (hiruek egin dezakete huts, batek, bik...), etxe gabezia mota batez edo bestez mintzo gara. Hortaz, hiru esparru horien konbinaziotik lau etxe gabezia kategoria sortzen dira (bazterketa maila txikienetik handienara); hain zuzen ere, Europako ETHOS tipologiaren lau oinarritzko kategoriak direnak:

¹ AVRAMOV, D. (1996) *The Invisible Hand of the Housing Market: A Study of Effects of Changes in the Housing Market on Homelessness in the European Union*. Bruselas: FEANTSA.

- Etxegabeak.
- Etxebizitza gabeak.
- Etxebizitza ez segurua.
- Etxebizitza desagokia.

Kontzeptuzko kategoria horietatik abiatuta, 13 kategoria operatibo bereizten ditugu, dokumentu honen I Eranskineko taulan ikus daitekeen moduan. Kategoria horiek barne hartzen duten eskalaren bi muturretan, kalean lo egiten duten pertsonak (espazio publikoetan) eta etxe batean pilatuta baldintza desagokietan bizi diren pertsonak (muturreko pilaketa) egongo lirateke. Bestetik, kontzeptu esparru honen bitartez, bizilekuak dituen ezaugarrien arabera –eta ez ezaugarri pertsonalen arabera– sailka daitezke ere bizitegi bazterketa pairatzen duten pertsonak.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu tipologia honek zentzu oso zabal batean hartzen duela etxe gabezia, eta ikerketa lan honek ez diela tipologian zehaztutako bizitegi bazterketa egoera guztiei erreparatzen. Jakina, egokia litzateke kontuan hartzea ETHOS tipologiaren kontzeptu esparruak barne hartzen dituen egoera guztiak (horrek, zalantzarik gabe, bizitegi bazterketa munta askoz handiagoko arazotzat hartzera eramango gintuzke). Hala eta guztiz ere, ezin izan da halakorik egin, eskura zeuden estatistika iturriengatik eta azterlanaren beraren irisgarritasun mugatuagatik. Edonola ere, ETHOS tipologiak kontuan hartzen dituen kategoria operatibo eta bizitegi egoeren multzoari dagokionez, EAEn eginiko ikerlana ‘etxegabeak’ eta ‘etxebizitza gabeak’ kontzeptu kategoriek barne hartutakoetan oinarritu da nagusiki. Honako hauetan, zehazki:

- Etxegabeak:
 - Espazio publikoa eta kanpoko (1.1 kodea)
 - Gaueko babeslekua edo aterpea (2.1 kodea)
- Etxebizitza gabeak:
 - Aterpetxeak eta zentroak (3.1 kodea)
 - Aldi baterako eta iragaitzazko bizilekuak (3.2 kodea)
 - Bizilekuak laguntzarekin (3.3 kodea)
 - Emakumeentzako aterpeak (4.1 kodea)
 - Aldi baterako bizilekuak / Harrera zentroak (5.1 kodea)
 - Epe luzerako babespeko etxebizitza eta lagundua, aurretik etxerik ez zuten pertsonentzat (7.2 kodea)

Hori horrela, komeni da ikerketa lan honen helburuari buruzko ñabardura batzuk egitea.

Hasteko, kontuan hartu behar da azterlan honetatik kanpo gelditu dela 5.2 kodeak jasotzen duen bizitegi egoera (sasoiko langileentzako bizilekuak), baita 7.1 kodean jasotakoa ere (etxerik gabeko adinekoentzako egoitza), EAEn ez baita horrelakorik aurkitu. Gainera, ikerketatik kanpo utzi dira ere ETHOS tipologiaren 6. kategoria operatiboaren (Epe jakin batean erakunde instituzio edo barneratze zentro batetik kanporatuko dituzten pertsonak) hiru azpikategiak.

Aipatzekoa da, halaber, kalez kale eginiko zenbaketaren emaitzaren ondorioz, ikerketa lanaren barnean sartu zirela ‘etxebizitza desagokia’ kontzeptu kategoriako bizilekuetan (ETHOS tipologiaren arabera) aurkitu ziren pertsonak (11. eta 12. kategoria operatiboak), azterlanerako

hasieran aukeratutako bizitegi kategorietakoak ez izan arren. Gehienek ibilgailuetan, txaboletan edo abandonatutako eraikinetan lo egiten zuten.

Ñabardura horiek eginda, komeni da zehaztea zein izan den ikerketa lan honen biztanleria jomuga:

- Etxerik gabeko pertsonak, adin guztietakoak, kalean lo egiten dutenak, estalperik gabeko lekuetan, erabilera publikoko espazio estalietan edo kalean denen bistara dagoen beste leku desegokiren batean.
- Etxerik gabeko pertsonak, adin guztietakoak, aterpea eskaintzen duten gizarte zerbitzu edo zentroetara jotzen dutenak.

Azterlanerako informazioa era sistematikoan eta ordenatuan biltzeko, tresna hauek erabili dira:

- Kalean aurkitutako etxegabeentzako galdetegia eta erabilera eskuliburua. 42 galdera dituen galdetegi bat da, kalean aurkitutako pertsonentzat egina, haien oinarritzko ezaugarri soziodemografikoak eta egoera ezagutzeko (egoera administratiboa, osasuna, gizarte eta familia harremanak, etab.). Galdetegiari fitxa bat erantsi zaio, oinarritzko identifikazio eta lokalizazio datuak biltzeko. Fitxa honek kalean aurkitutako pertsona guztien datuak bildu behar ditu, banaka, kontuan izan gabe galdetegiari erantzuten dioten ala ez.
- Kale zenbaketarako zantzuen inprimakia. Informazioa biltzeko tresna honen bidez, kale zenbaketaz arduratu diren boluntarioek zantzuetan oinarritutako datuak jaso dituzte: besteak beste, gaua kalean igaro duen pertsona kopuruaren kalkulua egin dute, arrazoizko zantzuetan oinarrituta. Inprimaki hau hiru eremu nagusitan banatutako galdetegi batean oinarritu da: erabilitako informazio iturria, pertsonen kokapen posiblea eta zenbatetsitako pertsona kopurua.
- Aterpetxeetan aurkitutako etxegabeentzako galdetegia eta erabilera eskuliburua. 43 galdera dituen galdetegi hau aterpea eskaintzen duten gizarte zerbitzuetako zentroetan erabiltzeko egin da. Zehazki, urriaren 29tik 30erako gaua aterpetxe horietan lo egin zuten pertsonentzat egin zen. Helburua pertsonen ezaugarri soziodemografikoak eta egoera ezagutzea da (egoera administratiboa, osasuna, gizarte eta familia harremanak, etab.). Galdetegi hau kalean erabilitakoaren oso antzekoa da (hiru galdera izan ezik, gainerakoak berdinak dira), eta oinarritzko identifikazio eta karakterizazio datuak biltzeko fitxa bat erantsi zaio.
- Aterpea ematen duten zentro eta zerbitzuetan datuak biltzeko inprimakia. 13 galdera ditu, zentroetako arduradunei zuzenduak. Besteak beste, baliabideen oinarritzko ezaugarriak buruzko datuak bildu dira (titulartasuna, plaza kopurua eta plaza itunduak), eta urriaren 29tik 30erako gaua bertan igaro zuen pertsona kopurua.
- Eguneko zentro eta zerbitzuetan datuak biltzeko inprimakia. 11 galderez osatutako galdetegi hau eguneko zentro eta zerbitzuetako arduradunei zuzendu zaie (eguneko zentroak, gizarte jangelak eta kaleko taldeak, batik bat). Zentroek ez dute zertan bizitegi bazterketa egoeran dauden pertsonentzat bakarrik izan behar. Gaua kalean igaro zuten

pertsonen zenbaketa zer neurritaraino izan zen zehatza jakiteko, gaua non igaro zuten galdetu zieten etxegabeei laguntzen dieten eguneko zentro nagusietako arduradunek biharamunean zentrorra hurbildu ziren pertsona guztiei.

- Pertsona boluntarioen izen-emate fitxa. 11 galderez osatutako galdetegi laburra, ikerketan boluntario gisa parte hartu duten pertsonen zuzenduak.
- Datu bilketaren ebaluazio fitxa. Boluntarioen iritzia biltzeko 20 galderez osatutako inprimakia: zenbaketari buruzko iritzia eta antolamenduari eta metodologiari lotutako hainbat alderdiren balorazioa.

2. BIZITEGI BAZTERKETA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN ZENBAKETAREN EMAIKTZAK

2.1. Gaua kalean igaro zuten pertsonak

2.1.1. Zenbat pertsonak egin zuten lo kalean urriaren 29tik 30erako gauean?

10 udalerrietan kalez kale zenbaketan ibili ziren boluntario taldeek 323 pertsona aurkitu zituzten guztira². Pertsona horien artean, hiru laurden (247 pertsona, % 76,5) hiru hiriburuetan igaro zuten gaua: Bilbon, 141 pertsona (% 43,7); Donostian, 89 (% 27,6); Gasteizen, 17 (% 5,3). Gainerako udalerrietan 76 pertsona zenbatu ziren: 39, Irunen; 20, Getxon; 9, Barakaldon; 3, Laudion eta Santurtzin; 2, Portugaleten; Sestaon ez zen inor aurkitu kalean.

1.taula Kalez kale eginiko zenbaketaren emaitzak udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua


	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Guztira	
	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	% bertikala
Barakaldo	7	2	0	9	2,8%
Bilbao	117	17	7	141	43,7%
Donostia	63	8	18	89	27,6%
Gasteiz	14	3	0	17	5,3%
Getxo	17	2	1	20	6,2%
Irun	30	7	2	39	12,1%
Laudio	2	1	0	3	0,9%
Portugalete	2	0	0	2	0,6%
Santurtzi	3	0	0	3	0,9%
Sestao	0	0	0	0	0,0%
Guztira	255	40	28	323	100,0%

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

² II. Eranskinean, udalerri bakoitzeko distritu eta auzoen arabera gaueko kale zenbaketaren emaitzen taulak bildu dira.

Kalean aurkitutako pertsonen artean, 255 gizonezkoak ziren eta 40 emakumeak. Gainerako kasuetan (323 pertsonetatik 28), ezin izan zen sexurik zehaztu. Beraz, kalean aurkitutako pertsonen % 12,4 ziren soilik emakumeak. Nolanahi ere, emakumeen proportzioa aldatu egiten da udalerri batetik bestera, Laudioko % 33,3tik Donostiako % 9ra. Gainera, emakumeen presentzia pitin bat txikiagoa da hiriburuetan (% 11,3) beste udalerrietan baino (% 15,8). Bestetik, aipatzekoa da kalean aurkitutako emakumeen hazkunde txikia 2012. urteko datuei dagokienez. Urte horretan, gaueko zenbaketa hiriburuetan bakarrik egin zen, eta emakumeen proportzioa % 6,8koa izan zen.


1 grafikoa. Kalean aurkitutako pertsonen sexua udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua



Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

Alde batera utzirik zenbatutako pertsonen ezaugarri pertsonalak, ikuspegi erlatibotik aztertzen baditugu zenbaketa orokorraren datuak –hau da, kontuan harturik udalerri bakoitzeko 2014ko biztanleria–, Irun eta Donostia dira kalean aurkitutako pertsonen tasa handienak dituzten udalerriak (0,637 eta 0,478 pertsona mila biztanleko, hurrenez hurren), eta atzetik datoz Bilbo (0,407), Getxo (0,251), Laudio (0,163), Barakaldo (0,090), Gasteiz (0,070), Santurtzi (0,064), Portugalete (0,042) eta, azkenik, Sestao (ez zen inor aurkitu kalean).

2.grafikoa. Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko, udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua



Iturriak: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2014ko urtarrilaren 1eko datuak

Kalean aurkitutakoen kopurua gorabehera (hots, 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean kalean ikusi eta zenbatu ziren 323 pertsonak), horrek ez du esan nahi azterlanaren helburu ziren pertsona guztiengana iritsi zenik, eta, alde horretatik, kontuan izan behar da zenbaketarako erabilitako metodologiak muga batzuk eduki badituela. Izan ere, oso litekeena da pertsona gehiagok gaua kalean igarotzea eta hainbat arrazoi medio horiek aurkitzeko modurik ez izatea (ezkutatu egin zirelako, boluntario taldeak igaro ondoren bertaratu zirelako, miatu ez ziren eraikin abandonatuetan edo zuhaitzetan lo egin zutelako, etab.). Hori horrela, zenbaketaren errore marjina murriztu edo, gutxienez, kontrolatzeko, bi tresna zuzentzaile erabili ziren azterlanean³:

- Lehen tresna kaleko boluntarioen artean banatutako zantzuen inprimakia izan zen. Haren bidez, kalez kale eginiko bilaketan aurkitu ez arren, gaua kalean igaro izanaren (hainbat arrazoi medio bilatzaileen irismenetik kanpoko lekuetan) arrazoizko zantzuak zituzten kasuei buruzko informazioa bildu zen.
- Bigarren tresna, aldiz, etxegabeak hartzen dituzten eguneko zentro nagusietako arduradunei zuzendutako galdetegi espezifikoak izan zen, zentrora bertaratutakoek gaua non igaro zuten jakiteko, besteak beste. Informazio hau urriaren 30ean jaso zen; hots, zenbaketaren biharamunean. Zehazki, gaua non igaro zuten galdetu zitzairen, eta kalean igaro bazuten, norbait elkarriketa bat egitera hurbildu zitzairen.

³ Datu aurrerapen hau idazteko unean, oraindik ezin ditugu eman tresna hauen bidez zenbatetsitako pertsona kopuruari dagozkion emaitzak. Hala eta guztiz ere, datu horiek eskura egongo dira 2015ean argitaratuko den azterlanean.

323 pertsona horiekin kalean topo egin zenean, herena baino zerbait gutxiago (205) esna zeuden; 118, lo (% 36,5). Zenbatutako pertsona kopuru handienak dituzten bost udalerriak bakarrik aztertzen baditugu, emaitzak oso desberdinak dira. Bilbon eta Donostian, esna zeuden pertsonen ehunekoa % 57koa izan zen, beste udalerrien ehunekoen oso azpitik: Irun (% 79,5), Gasteiz (% 94,1) eta Getxo (% 100).

2.taula. Kalean aurkitutako pertsonen egoera (lo edo esna) udalerrien arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Esna		Lo		Guztira
	Kopurua	% horizontala	Kopurua	% horizontala	Kopurua
Barakaldo	3	33,3%	6	66,7%	9
Bilbao	81	57,4%	60	42,6%	141
Donostia	51	57,3%	38	42,7%	89
Gasteiz	16	94,1%	1	5,9%	17
Getxo	20	100,0%	0	0,0%	20
Irun	31	79,5%	8	20,5%	39
Laudio	0	0,0%	3	100,0%	3
Portugalete	0	0,0%	2	100,0%	2
Santurtzi	3	100,0%	0	0,0%	3
Sestao	0	--	0	--	0
Guztira	205	63,5%	118	36,5%	323

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014


Zenbatutako pertsonen erdiak (% 50,8) gaueko 22:00 eta 23:30 artean aurkitu ziren, eta pertsona kopuru handiena aurkitu zen ordu tarte 22:31-23:00 izan zen (62 pertsona). 23:00etatik aurrera, behera egin zuen pixkana kalean aurkitutako lagunen kopuruak. Goizaldeko 01:00 eta 02:00 artean, 11 pertsona soilik zenbatu ziren, eta zenbatutako 323 kasuetatik 37tan ez zen ordurik erregistratu.

3.taula. Aurkitutako pertsonen kopuruak orduaren eta udalerrien arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Zehaztu gabe	22:01-22:30	22:31-23:00	23:01-23:30	23:31-00:00	00:01-00:30	00:31-01:00	01:01-01:30	01:31-02:00	Guztira
Barakaldo	0	1	0	2	2	1	0	3	0	9
Bilbao	9	10	36	19	24	27	15	1	0	141
Donostia	3	28	10	14	14	6	10	2	2	89
Gasteiz	9	1	3	2	2	0	0	0	0	17
Getxo	11	2	1	3	1	0	0	1	1	20
Irun	0	13	12	4	1	3	5	1	0	39
Laudio	3	0	0	0	0	0	0	0	0	3
Portugalete	2	0	0	0	0	0	0	0	0	2
Santurtzi	0	2	0	1	0	0	0	0	0	3
Sestao	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	37	57	62	45	44	37	30	8	3	323

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

**3.grafikoa. Aurkitutako pertsonen kopuruak orduaren arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua**



Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

Orduak igaro ahala, handituz joan zen lo zeuden pertsonak aurkitzeko probabilitatea. Datu globalen arabera, 22:00-23:00 artean aurkitutako pertsonen % 15,1 lo zeuden; 24:00-01:00 artean, % 61,2. Nolanahi ere, aipagarria da Bilbon eta Donostian zenbaketaren lehen orduetan lo aurkitu ziren pertsonen kopurua.

4.taula. Lo aurkitutako pertsonak orduaren eta udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	22:01-23:00	23:01-00:00	00:01-1:00	1:01-2:00	Zehaztu gabe	Guztira
Barakaldo	0,0	100,0	100,0	33,3	--	66,7
Bilbao	23,9	37,2	61,9	100,0	66,7	42,6
Donostia	13,2	60,7	62,5	100,0	66,7	42,7
Gasteiz	0,0	25,0	--	--	0,0	5,9
Getxo	0,0	0,0	--	0,0	0,0	0,0
Irun	8,0	40,0	50,0	0,0	--	20,5
Laudio	--	--	--	--	100,0	100,0
Portugalete	--	--	--	--	100,0	100,0
Santurtzi	0,0	0,0	--	--	--	0,0
Sestao	--	--	--	--	--	--
Guztira	15,1	44,9	61,2	54,5	35,1	36,5

Oharra: (-) gidoiak esan nahi du ordu horretan ez zela inor aurkitu.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

2.1.2. Emaizten bilakaera eta azterketa konparatiboa veste hiri batzuekin

Hurrengo taulak orain arte egin diren gaueko kale zenbaketa guztien emaitzak biltzen ditu, eta, ikus daitekeenez, ezin esan daiteke joera orokor bat dagoenik. Bilboko zenbaketaren emaitza (141 pertsona) orain dela bi urtekoaren oso antzekoa da; aldiz, Donostiak igoera handia izan du, % 35ekoa, 2014ko kopurua 2012koarekin konparatuz gero, eta ia % 100koa, orain dela hiru urtekoarekin alderatuta. Azkenik, Gasteizen kalean aurkitutako pertsonen kopuruak % 41 egin du behera (29tik 17ra).

5.taula. Kalean aurkitutako pertsona kopuruaren bilakaera udalerrien arabera. 2010/2011-2012-2014

	2010/2011*	2012	2014
Bilbao	205	148	141
Donostia	45	66	89
Gasteiz	--	29	17
Guztira	250	243	247

*2010eko ekainaren 15etik 16rako gauean zenbaketa bat egin zen Bilbon. Hurrengo urtean, Donostian egin zen, 2011ko martxoaren 23tik 24rako gauean.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. Urte bakoitzeko urtarilaren lehen hartutako datuak.

EAEko hamar udalerri hauez gainera, antzeko azterlanak egin dira duela gutxi estatuko beste hiri batzuetan. Ondoko taulak Madril, Zaragoza eta Sevillan egin diren azken azterlanen datuak bildu eta euskal hiriburuetaekin alderatzen ditu. Donostia da tasarik handiena duen hiria: 0,478 pertsona kalean lo mila biztanleko. Atzetik datoz Bilbo eta Sevilla, 0,407ko tasarekin mila biztanleko. Aldiz, Madril (0,217) eta Zaragozak (0,209) tasa apalagoak dituzte, 0,2 ingurukoak; hau da, hiri hauetan etxe gabeziak duen hedadura Donostian, Bilbon eta Sevillan duenaren erdia da, gutxi gorabehera. Gasteiz da aztertutako hiri guztien artean tasarik txikiena duena: 0,070 mila biztanleko.

6.taula. Kalean gauez aurkitutako pertsonen kopurua eta tasa, hirien arabera. 2012/2014

	Donostia (2014)	Sevilla (2013)	Bilbao (2014)	Madril (2012)	Zaragoza (2014)	Gasteiz (2014)
Kalean aurkitutako pertsonak	89	97	141	701	139	17
Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko	0,478‰	0,407‰	0,407‰	0,217‰	0,209‰	0,070‰
Erreferentzia biztanleria	186.126	238.353	346.574	3.233.527	666.058*	242.082

*Sevillako zenbaketan erabilitako eremua erdialdeko zonaldeetara mugatu zenez, erabilitako biztanleria Hirigune Historikoa, Nervion eta Trianako distrituei dagokiena da.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; Madrilgo etxerik gabeko pertsonen VI. zenbaketa. 2012ko abenduaren 13; Zaragozako etxerik gabeko pertsonen zenbaketa. 2014ko azaroaren 27. Nessum Dorma txostena, Sevilla hiriburuko etxerik gabeko pertsonen IV. zenbaketa (2013); INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. Urte bakoitzeko urtarilaren lehen hartutako datuak.

2.2. Gizarte-zerbitzuen aterpe baliabideak erabili zituzten pertsonak

2.2.1. Zenbat pertsonak jo zuten aterpe baliabideetara urriaren 29tik 30erako gauean?

Udalek, Foru Aldundiek eta etxegabekoei aterpe ematen dieten erakundeek emandako datuetan ikus daitekeenez, 1.513 pertsonak igaro zuten 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua era honetako zentroetan. Kopuru globaletan, datu horrek (253 aterpe baliabideri dagokie) honako hau adierazten du: 6 pertsona batez beste baliabide bakoitzeko eta ia % 73ko okupazio tasa.

7.taula. Aterpe baliabideetara jo zuten pertsonen zenbaketaren emaitzak lurraldeen arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	CAPV
Aterpea ematen duen zentro kopurua	48	129	76	253
Plaza kopurua guztira	449	943	693	2.085
Plaza publiko edo itunduen kopurua	379	681	573	1.633
Aterpe hartutako pertsona kopurua	277	729	507	1.513
Babek besteko plaza kopurua zentroko	9,4	7,3	9,1	8,2
Batez besteko pertsona kopurua baliabideko	5,8	5,7	6,7	6,0
Plaza kopuru guztizkoa 1.000 biztanleko	1,39‰	0,82‰	0,97‰	0,95‰
Plaza publiko edo itunduen kopurua 1.000 biztanleko	1,18‰	0,59‰	0,80‰	0,75‰
Okupazio tasa	61,7%	77,3%	73,2%	72,6%

Iturria: EAEEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda jarraituaren Estatistika. 2014ko urtarillaren 1eko datuak.

Orokorrean hartuta, gau horretan aterpe baliabideetan lo egin zuten pertsonen %18ak lo egin zuen hiru hiriburuetakoko gaueko harrera duten udal zentroetan. Bilbon, Elejebarrri Udal Aterpetxeak (66 pertsona), Gaueko Aterpetxeak (36 pertsona) eta Eskakizun Gaxuko Udal Aterpetxeak (28 pertsona), 130 pertsona onartu zuten, Bizkaian gau horretan ostatzuz zeudenetik %17,8a. Donostian, udaleko Abegi Etxea eta atxikitako lokalak (43 pertsona) eta Gaueko Aterpeak (30 pertsona) aterpe eman zieten 73 pertsonari, hori da, Gipuzkoa gau horretan ostatzuz zeudenetik %14,4a. Azkenez, Gasteizen, dauden udal hiru aterpeek –Abegi Etxea (38 pertsona), Gaueko Aterpea (25 pertsona) eta “Casa Abierta” Udal Abegia (7 pertsona)–70 pertsona hartu zuten, Araban gau horretan ostatzuz zeudela zenbatu zirenetik % 25,3a.


EAEko hiru hiriburuetakoko udal aterpetxeek hartu zituzten pertsona gehien. Zenbaketa egin zen gauean, Bilboko Elejabarriko Udal Aterpetxeak 66 pertsona artatu zituen; aldiz, Donostia eta Gasteizko Gizarte Abegiko Udal Zentroek (GAUZ) 40 eta 38 pertsona aterpetu zituzten, hurrenez hurren. Guztira, hiru zentroek 144 pertsona hartu zituzten; hots, gauean artatutako pertsona guztien % 9,5.

Azterlan honetan aztertutako 253 zentroetatik, 11 hutsik egon ziren zenbaketa egin zen gauean, eta 138k (hots, % 54,5) % 75eko edo hortik gorako okupazioa izan zuten. Lagun kopuru handienak hartu zituzten 10 zentroen kasuan (zenbatutako pertsona guztien % 24k igaro zuten gaua zentro horietan), % 84koa izan zen batez besteko okupazioa.

Bestetik, aterpetxe gehienek hiriburuetan egoten jarraitzen dute, eta, beraz, hiru udalerrri horietako baliabideetan aterpetutakoen proportzioa handia da. Bildutako informazioaren arabera, ikerlanean aztertutako zentro guztien % 81 hiriburuetan daude (253tik 191); gainerako zentroak, beste 20 udalerritan. Horrela, zenbatutako pertsona guztien artetik (1.513), 595 (% 39,3) Bilbon zenbatu ziren; 350 (% 23,1), Donostian; eta 277 (% 18,3), Gasteizen. Gainerakoak Gipuzkoako (% 10,4) eta

Bizkaiko (% 8,9) beste udalerri batzuetako aterpetxeetan zenbatu ziren. Gipuzkoaren kasuan, aterpetxeetan zenbatutako pertsona guztien % 69 (507tik 350) hiriburuko zentroetan zenbatu ziren; Bizkaian, proportzio hori % 82koa izan zen (729tik 595); Araban, % 100ekoa.

4.grafikoa. Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen banaketa geografikoa.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua



Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

Azkenik, zentroetan aterpetutako pertsonen oinarritzko datu soziodemografikoei dagokienez, pertsonen % 7,3 (111) nagusiez lagundutako adingabeak ziren. Zenbatutako 1.513 pertsonetatik soilik % 23,9 ziren emakumeak.

8.taula. Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen banaketa adinaren eta sexuaren arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		CAPV	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Sexua								
Gizonak	187	67,5%	583	80,0%	381	75,1%	1.151	76,1%
Emakumeak	90	32,5%	146	20,0%	126	24,9%	362	23,9%
Guztira	277	100,0%	729	100,0%	507	100,0%	1.513	100,0%
Adina								
18 urtetik beherakoak	46	16,6%	26	3,6%	39	7,7%	111	7,3%
18 urtekoak eta hortik gorakoak	231	83,4%	703	96,4%	468	92,3%	1.402	92,7%
Guztira	277	100,0%	729	100,0%	507	100,0%	1.513	100,0%

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

2.2.2. Emaizten bilakaera

Ondoko taulak aterpea eskaintzen duten zentroetan egin diren gaueko zenbaketa guztien emaitzak biltzen ditu. Ikus daitekeenez, zenbatutako pertsona kopurua ia ez da aldatu azken urteetan, Gipuzkoan izan ezik. Hala, Araban eta Bizkaian jaitsiera oso txikiak izan dira, % 0,7 eta % 1,2koak, hurrenez hurren; Gipuzkoan, aldiz, % 14,2 hazi da aterpetxeetan zenbatu diren pertsonen kopurua.

9. taula. Aterpetxeetara jotzen duen pertsona kopuruaren bilakaera lurraldeen arabera.
2010/2011-2012-2014

	2010/2011*	2012	2014
Araba	--	279	277
Bizkaia	649	738	729
Gipuzkoa	419	444	507
Guztira	--	1.461	1.513

*2010eko ekainaren 15etik 16rako gauean zenbaketa egin zen Bizkaian. Hurrengo urtean, Gipuzkoan egin zen, 2011ko martxoaren 23tik 24erako gauean.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

2.3. Datu globalak

Hurrengo taulak 2014ko urriaren 29tik 30rako gauean egin zen zenbaketa emaitzak biltzen ditu, kopuru absolutuetan. Jada esan dugun bezala, kalean aurkitutako pertsonen kasuan, datuak EAEko hamar udalerritakoak dira (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao); aldiz, aterpeek aterpetutako pertsonen kasuan, EAE osoko gizarte zerbitzuen sareak emandako datuak dira.

Ñabardura hori eginik, datu globaletan ikus daitekeenez, **bizitegi bazterketa larrian dauden 1.836 pertsona** zenbatu ziren EAEn. Horien artetik, hamarretik bi, gutxi gorabehera, kalean aurkitu ziren (323 pertsona), eta gainerakoek (% 78,7) EAEko gizarte zerbitzuetako aterpetxeetara jo zuten.

10. taula. EAEn bizitegi bazterketa larrian dagoen pertsona kopurua.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	CAPV
Kalean aurkitutako pertsonak	20	175	128	323
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonak	277	729	507	1.513
Guztira	297	904	635	1.836

Oharra: kalean aurkitutako pertsonen dagokien, taula honetako datuek gaueko zenbaketa egin zen 10 udalerritako emaitzak bakarrik biltzen dituzte (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao).

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

Ondoko taulak bizitegi bazterketako egoeren intzidentzia adierazten du, lurraldeen arabera. Kalean aurkitutako pertsonen dagokien, emaitza globalek adierazten dutenez, intzidentzia tasa 0,279 pertsona 1.000 biztanleko da. Gipuzkoako tasak (0,518) Donostia eta Irungo udalerrak barne hartzen ditu, eta Bizkaikoa (0,270) –Bilbo, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao hartzen ditu– eta batez ere Arabakoa (0,077) –Gasteiz eta Laudiokoa hartzen ditu– baino handiagoa da.

**11.taula. Bizitegi bazterketako egoera larrien intzidentzia eta banaketa EAEn.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	CAPV
Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko ¹	0,077‰	0,270‰	0,518‰	0,279‰
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko ²	0,860‰	0,633‰	0,709‰	0,691‰
Tasa guztira 1.000 biztanleko ²	0,923‰	0,785‰	0,888‰	0,839‰
Kalean aurkitutakoen ehunekoa guztizkoari dagokionez	7,2%	24,0%	25,2%	21,3%
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen ehunekoa guztizkoari dagokionez	93,3%	80,6%	79,8%	82,4%

1. Datuak 10 udalerrietan aurkitutako pertsonen bakarrak dagokienez (Barakaldo, Bilbao, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao), tasa hau biztanleria horren arabera kalkulatu da. 2. Tasa hau lurralde bakoitzean bizi den pertsonen guztizkoari dagokionez kalkulatu da.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2014ko urtarillaren 1eko datuak

Alde txikiak ikus daitezke hiru lurraldeen artean aterpetxeetan zenbatutako pertsonen intzidentzia tasari dagokionez: tasa altuena Araban dago (0,86 pertsona 1.000 biztanleko); baxuena, aldiz, Bizkaian (0,633). Gipuzkoa bien artean kokatzen da: 0,709 pertsona 1.000 biztanleko.

Datuen bilakaerari dagokionez, 2012ko zenbaketan lorturikoekin konpara daitezkeen emaitzak soilik hartuz gero⁴, ikus daiteke gutxi aldatu dela zenbatutako pertsonen kopurua globalki. Kontuan harturik bai hiru hiriburuetan kalean aurkitutako pertsonak bai EAeko aterpetxeetan zenbatutakoak, bizitegi bazterketa larrian dagoen pertsona kopuru osoa 1.704tik 1.760ra igo da; hots, % 3,3ko igoera 2012ari dagokionez. Hala eta guztiz ere, alde handiak daude hiru lurraldeen artean, eta, bereziki, Bizkai eta Arabaren –batetik– eta Gipuzkoaren –bestetik– artean. Aterpetxeetan zenbatutako pertsona kopuruari dagokionez, Gipuzkoa % 14,2 hazi da bi urte hauetan; aldiz, Bizkaia eta Araba behera egin dute, % 1,2 eta % 0,7, hurrenez hurren. Antzeko joera ikus daiteke kalean aurkitutako pertsonen dagokienez. 2012 eta 2014 artean, Donostian zenbatutako pertsonen hazkundea % 34,8koa izan da; aldiz, Bilbo eta Gasteizko kopuruek behera egin dute, % 4,7 eta % 41,4, hurrenez hurren.

⁴ Aterpetxeetan zenbatutako pertsona kopuruari dagokionez, 2012 eta 2014ko emaitzak guztiz konparagarriak dira (zenbaketak hiru lurraldeen eremu osora zabaldu baitziren bi urte horietan); aldiz, kalean aurkitutako pertsonen dagokienez, bai 2012an bai 2014an gaueko zenbaketak egin dituzten udalerriak soilik konpara daitezke (Bilbo, Gasteiz eta Donostia).

12.taula. Bizitegi bazterketako egoera larrien intzidentziaren eta banaketaren bilakaera EAEn.
2012ko urriaren 17-18 eta 2014ko urriaren 29-30 gauak

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			CAPV		
	2012	2014	Δ (%) 2014-12	2012	2014	Δ (%) 2014-12	2012	2014	Δ (%) 2014-12	2012	2014	Δ (%) 2014-12
Kalean aurkitutako pertsonak	29	17	-41,4%	148	141	-4,7%	66	89	34,8%	243	247	1,6%
- Gizonak	23	14	-39,1%	136	117	-14,0%	61	63	3,3%	220	194	-11,8%
- Emakumeak	6	3	-50,0%	6	17	183,3%	4	8	100%	16	28	75,0%
- Zehaztu gabe	0	0	--	6	7	16,7%	1	18	1.700%	7	25	257,1%
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonak	279	277	-0,7%	738	729	-1,2%	444	507	14,2%	1.461	1.513	3,6%
- Gizonak	198	187	-5,6%	604	583	-3,5%	355	381	7,3%	1.157	1.151	-0,5%
- Emakumeak	81	90	11,1%	134	146	9,0%	89	126	41,6%	304	362	19,1%
- Zehaztu gabe	0	0	--	0	0	--	0	0	--	0	0	--
Guztira	308	294	-4,5%	886	870	-1,8%	510	596	16,9%	1.704	1.760	3,3%
Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko ¹	0,120‰	0,070‰	-41,3%	0,421‰	0,407‰	-3,3%	0,354‰	0,478‰	35,1%	0,311‰	0,319‰	2,4%
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko ²	0,865‰	0,860‰	-0,5%	0,637‰	0,633‰	-0,7%	0,624‰	0,709‰	13,7%	0,666‰	0,691‰	3,8%
Tasa guztira 1.000 biztanleko ²	0,614‰	0,581‰	-5,4%	0,521‰	0,506‰	-2,9%	0,499‰	0,533‰	6,9%	0,528‰	0,526‰	-0,3%
Kalean aurkitutako pertsonen % guztizkoari dagokionez	9,4%	5,8%	-38,6%	16,7%	16,2%	-3,0%	12,9%	14,9%	15,4%	14,3%	14,0%	-1,6%
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen % guztizkoari dagokionez	90,6%	94,2%	4,0%	83,3%	83,8%	0,6%	87,1%	85,1%	-2,3%	85,7%	86,0%	0,3%
Emakumeen % kalean aurkitutako pertsonen artean	20,7%	17,6%	-14,7%	4,1%	12,1%	197,4%	6,1%	9,0%	48,3%	6,6%	11,3%	72,2%
Emakumeen % aterpetxeetan zenbatutako pertsonen artean	29,0%	32,5%	11,9%	18,2%	20,0%	10,3%	20,0%	24,9%	24,0%	20,8%	23,9%	15,0%
Emakumeen % guztizkoari dagokionez	28,2%	31,6%	12,0%	15,8%	18,7%	18,6%	18,2%	22,5%	23,3%	18,8%	22,2%	18,0%
Biztanleria osoa hiriburuetan	242.223	242.082	-0,1%	351.629	346.574	-1,4%	186.409	186.126	-0,2%	780.261	774.782	-0,7%
Biztanleria osoa hiru lurraldeetan	322.557	321.932	-0,2%	1.158.439	1.151.905	-0,6%	712.097	715.148	0,4%	2.193.093	2.188.985	-0,2%

1. Datuak kalean zenbatutako pertsonen dagozkie soil-soilik (2012 eta 2014an hiru hiriburuetan eginiko zenbakaketan lorturikoak). Beraz, tasa hau kalkulatzeko, kontuan hartu dira soil-soilik Gasteiz, Donostia eta Bilboko biztanleriak. 2. Tasa hau lurralde bakoitzeko biztanleriari dagokionez kalkulatu da.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2012 eta 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. Urte bakoitzeko urtarriaren 1eko datuak.

3. BOLUNTARIOEN LANA

780 pertsona boluntariok parte hartu dute ikerketa lan honetan. Gehienek urriaren 29ko gaueko 22:00 eta 02:00 artean kalean egin zen zenbaketan lagundu zuten. Boluntarioen % 68 emakumeak izan ziren. Bestetik, gau horretan bertan, beste boluntario batzuk elkarriketak egiten aritu ziren hiru hiriburuetak aterpetxe nagusietan, eta gainerako zentroei dagokienez, zentro horietako profesionalak arduratu ziren elkarriketa pertsonalak egiteaz.

Hona hemen boluntarioen banaketa sexuaren eta udalerrien arabera.

13. taula. Kaleko zenbaketan parte hartu zuten boluntarioak eta azalerak, udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Pertsona boluntarioak			Azalera (km ²)	Boluntario kop. km ² bakoitzeko
	Gizonak	Emakumeak	Guztira		
Barakaldo	15	25	40	29,39	1,36
Bilbao	76	126	202	41,31	4,89
Donostia	51	99	150	60,89	2,46
Gasteiz	35	163	198	276,81	0,72
Getxo	31	41	72	11,89	6,06
Irun	21	44	65	42,4	1,53
Laudio	4	10	14	37,45	0,37
Portugalete	10	12	22	3,21	6,85
Santurtzi	8	7	15	7,15	2,10
Sestao	2	0	2	3,52	0,57
Guztira	253	527	780	514,02	1,52

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; Institutu Geografiko Nazionala.

I.ERANSKINA

ETXEGABEKOEN ETA BIZITEGI BAZTERKETAREN EUROPAKO TIPOLOGIA (ETHOS)

14.taula. Etxegabekoen eta bizitegi bazterketaren Europako tipologia. 2007ko berrikuspena

KONTZEPTU KATEGORIA		KATEGORIA OPERATIBOA	KODEA	BIZITEGI EGOERA	DEFINIZIOA
ETXEGABEAK	1	Espazio publiko batean bizi diren pertsonak (estalperik gabe)	1.1	Espazio publikoa eta kanpokoa	Kalean edo espazio publikoetan lo egiten, aterperik gabe
	2	Gaueko aterpe batean egiten dute lo, eta egunez hainbat ordu igarotzen dituzte espazio publiko batean	2.1	Gaueko babeslekua edo aterpea	Ohiko bizilekurik gabeko pertsonak, oso eskakizun apaleko aterpetxeak edo zentroak erabiltzen dituztenak
ETXEBIZITZA GABEAK	3	Etxegabeentzako aterpe eta zentroetan bizi diren pertsonak (aldi baterako bizilekua)	3.1	Aterpetxeak eta zentroak	Egonaldia epe laburrekoa edo ertainekoa denean, aldi baterako, ez behin betiko bizileku gisa
			3.2	Aldi baterako eta iragaitzak bizilekuak	
			3.3	Bizilekuak laguntzarekin	
	4	Emakumeentzako aterpeak	4.1	Emakumeentzako aterpeak (bakarrik edo seme-alabekin)	Genero bortizkeria pairatu duten emakumeak, aldi baterako bizilekutzat hartua betiere
	5	Asilo eskatzaileentzako eta immigratzaileentzako zentroetan dauden pertsonak	5.1	Aldi baterako bizilekuak / Harrera zentroak	Immigratzaileak harrera zentroetan edo aldi baterako bizilekuetan, immigratzaile izateagatik / Aberriatze zentroak (barneratzea)
			5.2	Sasoiko langileentzako bizilekuak	
	6	Epe jakin batean erakunde instituzio edo barneratze zentro batetik kanporatuko dituzten pertsonak	6.1	Espetxe erakundeak (espetxeak)	Etterik gabe espetxetik irtetean
			6.2	Osasun erakundeak (ospitaleak, etab.)	Beharrezkoa dena baino egonaldi luzeagoa, etxebizitza faltagatik
			6.3	Adingabeentzako zentroak	Adibidez, 18 urte betetzear etxebizitzarik ez dutenak
	7	Etterik gabeko pertsonak izateagatik, bizilekua eta laguntza iraunkorra jasotzen duten pertsonak	7.1	Etterik gabeko adinekoentzako egoitza	Aterpea egonaldi luzeko laguntzarekin, etterik gabe bizi izan diren pertsonentzat
			7.2	Epe luzerako babespeko etxebizitza eta lagundua, aurretik etterik ez zuten pertsonentzat	
ETXEBIZITZA EZ-SEGURUA	8	Edukitza erregimen ez-seguruan bizi diren pertsonak. Alokairua ordaindu gabe	8.1	Senitartekoen etxeetan	Bizileku konbentzional batean bizitzen, baina ez norberarena, etxebizitza galdu delako. Legez kanpoko okupazioa, edo inongo berme juridikorik gabe etxe horretan bizitzeko
			8.2	Lege edukitzarik gabe (adib.: azpialokatuak)	
			8.3	Legez kanpoko okupazioa	
	9	Kaleratze mehatxupean bizi diren pertsonak	9.1	Errentan	Kaleratze aginduekin, alokairua ez ordaintzeagatik
			9.2	Etxebizitzaren jabe izanda	Desjabetuak izateko zorian, hipoteka ez ordaintzeagatik
ETXEBIZITZA DESEGOKIA	11	Behin-behineko egituretan edo eraikuntza ez-konbentzionalatan bizi diren pertsonak	11.1	Karabanak eta antzekoak	Norberak eraikitako bizilekua, txabolak, etxolak, etab.
			11.2	Eraikuntza ez-konbentzionalak edo pertsonak bizitzeko eraiki ez direnak	
			11.3	Aldi baterako egiturak	
	12	Bizileku desagokia	12.1	Eraikin okupatua, bizitzeko desagokia	Legediaren arabera pertsonentzat desagokiak diren bizilekuak
	13	Muturreko pilaketa	13.1	Pilaketa adierazten duten ohiko estandarren oso gainetik	Pilaketari buruzko lege arauen oso gainetik

Iturria: CABRERA, P. J. et al. (2008) ¿Quién duerme en la calle? Una investigación social y ciudadana sobre las personas sin techo. Serie: herramientas para la inclusión, 4, Bartzelona: Caixa Catalunya.

II. ERANSKINA

KALEZ KALE EGINIKO ZENBAKETAREN EMAITZAK UDALERRIEN ARABERA

2014ko URRIAREN 29tik 30erako GAUA

14. taula Barakaldon eginiko kale zenbaketaren emaitzak auzoen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Kalean aurkitutako pertsonak				
	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
Gurutzeta, Poligono eta Lutxana	0	0	0	0	0,0
Castañes, Kastrexana, Zubileta, Basatxu eta Osalan	0	0	0	0	0,0
Zuhatzu, Arteagabeitia, Erreka Ortu, BEC ingurabidea	1	0	0	1	11,1
Max Center, Megapark, Kareaga, Errekatxo, Gorostiza, Torres San Vicente	0	0	0	0	0,0
San Vicente, Hilerria, Mukusuluba, Epaitegiak, El Pilar ikastetxea	5	2	0	7	77,8
Askatasunaren hiribidea (Los Hermanos parkearen espaloia), Herriko Plaza, Etxatxu eta Rontegi	0	0	0	0	0,0
Beurko eta Santa Teresa	0	0	0	0	0,0
Lasesarre eta Murrieta	1	0	0	1	11,1
Guztira	7	2	0	9	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

**15.taula. Bilbon eginiko kale zenbaketaren emaitzak distrituen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua**

		Kalean aurkitutako pertsonak				
		Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
		Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
1 distritua	Deustu	7	3	0	10	7,1
	San Inazio	0	0	0	0	0,0
	Ibarrekolanda-Arangoiti	0	0	0	0	0,0
	Deustuko Erribera	4	1	0	5	3,5
	Guztira	11	4	0	15	10,6
2 distritua	Castañós	0	0	1	1	0,7
	Uribarri	1	0	0	1	0,7
	Zurbaran	0	0	0	0	0,0
	Matiko eta Lorategi Hiria	2	0	0	2	1,4
	Guztira	3	0	1	4	2,8
3 distritua	Otxarkoaga	1	1	0	2	1,4
	Txurdinaga	0	0	0	0	0,0
	Guztira	1	1	0	2	1,4
4 distritua	Begoña	0	0	0	0	0,0
	Santutxu	0	0	0	0	0,0
	Bolueta	2	0	0	2	1,4
	Guztira	2	0	0	2	1,4
5 distritua	Alde Zaharra	5	2	0	7	5,0
	Iturrialde-Solokoetxe-Atxuri	3	0	0	3	2,1
	Bilbo Zaharra-San Frantzisko	2	0	0	2	1,4
	Zabala-Miribilla-San Adrian	1	0	0	1	0,7
	Abusu	0	0	0	0	0,0
	Guztira	11	2	0	13	9,2
6 distritua	Abando	8	1	1	10	7,1
	Indautxu	14	4	3	21	14,9
	Guztira	22	5	4	31	22,0
7 distritua	Errekaldeberri	11	0	0	11	7,8
	Iralabarri	1	1	1	3	2,1
	Amezola	9	2	0	11	7,8
	Peñascal-Uretamendi	2	0	1	3	2,1
	Guztira	23	3	2	28	19,9
8 distritua	Basurtu	14	1	0	15	10,6
	Olabeaga	27	1	0	28	19,9
	Altamira-Monte Carmelo	3	0	0	3	2,1
	Zorrotza	0	0	0	0	0,0
	Guztira	44	2	0	46	32,6
Guztira		117	17	7	141	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

**16. taula Donostian eginiko kale zenbaketaren emaitzak auzoen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua**

		Kalean aurkitutako pertsonak				
		Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
		Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
1. Antigua-Añorga	Antigua-Apaizgaitegia	0	1	0	1	1,1
	Berio-Lorea	0	0	0	0	0,0
	Errotaburu-Bera Bera	0	0	0	0	0,0
	Añorga-Rekalde	0	0	0	0	0,0
	Ondarreta-Benta Berri	0	0	1	1	1,1
	Guztira	0	1	1	2	2,3
2. Alde Zaharra - Erdialdea	Alde Zaharra - Urgull	5	3	0	8	9,0
	Alde Erromantikoa	9	1	0	10	11,2
	Alde Zaharra - San Roke	2	0	0	2	2,3
	Mirakontxa	0	0	0	0	0,0
	Guztira	16	4	0	20	22,5
3. Amara Berri-Loiola-Martutene	Erribera-Loiola-Txomin	2	1	0	3	3,4
	Amara Berri-Morlans	8	0	6	14	15,7
	Martutene	2	2	0	4	4,5
	Anoeta-Zorroaga	8	0	6	14	15,7
	Miramon-Errondo	0	0	0	0	0,0
	Guztira	20	3	12	35	39,3
4. Gros-Ulia-Egia	Ulia	1	0	0	1	1,1
	Gros	3	0	0	3	3,4
	Atotxa-Mundaiz	4	0	0	4	4,5
	Egia-Jai alai	2	0	0	2	2,3
	Guztira	10	0	0	10	11,2
5. Altza-Bidebieta-Intxaurrondo	Ipar-hego Intxaurrondo	1	0	3	4	4,5
	Intxaurrondo Zaharra-Berri	13	0	2	15	16,9
	Mirakruz-Bidebieta	3	0	0	3	3,4
	Herrera	0	0	0	0	0,0
	Altza	0	0	0	0	0,0
	Guztira	17	0	5	22	24,7
Guztira		63	8	18	89	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

**17.taula. Gasteizen eginiko kale zenbaketaren emaitzak distrituen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua**

		Kalean aurkitutako pertsonak				
		Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
		Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
1. distritua	Alde Zaharra	0	0	0	0	0,0
	Zabalgunea	2	0	0	2	11,8
	Coronación	0	0	0	0	0,0
	El Pilar	0	0	0	0	0,0
	Guztira	2	0	0	2	11,8
2. distritua	Lovaina	0	0	0	0	0,0
	Gazalbide	0	0	0	0	0,0
	Txagorritxu	0	0	0	0	0,0
	San Martin	0	0	0	0	0,0
	Ariznabarra	0	0	0	0	0,0
	Mendizorroza	4	1	0	5	29,4
	Zabalgana-Mercedes	1	0	0	1	5,9
	Guztira	5	1	0	6	35,3
3. distritua	Zaragama	0	0	0	0	0,0
	Aranbizkarra	1	0	0	1	5,9
	El Anglo	1	0	0	1	5,9
	Santiago	0	0	0	0	0,0
	Arana	1	0	0	1	5,9
	Aranzabela	0	0	0	0	0,0
	Salburua	1	0	0	1	5,9
	Guztira	4	0	0	4	23,5
4. distritua	Desamparados	2	2	0	4	23,5
	Judimendi	0	0	0	0	0,0
	Santa Luzia	0	0	0	0	0,0
	Adurtza	0	0	0	0	0,0
	San Kristobal	0	0	0	0	0,0
	Guztira	2	2	0	4	23,5
5. distritua	Ali Gobeo	0	0	0	0	0,0
	Sansomendi	0	0	0	0	0,0
	Arriaga-Lakua	0	0	0	0	0,0
	Abetxuko	0	0	0	0	0,0
	Guztira	0	0	0	0	0,0
6. distritua	Ekialdeko landa eremua	0	0	0	0	0,0
	Guztira	0	0	0	0	0,0
7. distritua	Gainerako zonak	1	0	0	1	5,9
	Guztira	1	0	0	1	5,9
Guztira		14	3	0	17	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

18.taula. Getxon eginiko kale zenbaketaren emaitzak auzoen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Kalean aurkitutako pertsonak				
	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
Areeta eta Erromo	1	0	0	1	5,0
Neguri	4	0	0	4	20,0
Algorta I	0	0	0	0	0,0
Algorta II	10	2	0	12	60,0
Algorta III	2	0	1	3	15,0
Andra Mari	0	0	0	0	0,0
Guztira	17	2	1	20	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

19.taula. Irunen eginiko kale zenbaketaren emaitzak auzoen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Kalean aurkitutako pertsonak				
	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
Katea/Bentak	1	0	0	1	2,6
Anaka, Jaizubia	0	0	0	0	0,0
Lapitze, Belaskoenea	19	5	0	24	61,5
Larreaundi, Olaberria	0	0	0	0	0,0
Arbes, Meaka	1	1	0	2	5,1
Antzaran, San Migel, Pinudi	2	0	0	2	5,1
Erdialdea, Alde Zaharra, Santiago-Beraun	4	0	1	5	12,8
Dunboa, Artia	1	0	1	2	5,1
Behobia	2	1	0	3	7,7
Guztira	30	7	2	39	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

20.taula. Laudion eginiko kale zenbaketaren emaitzak auzoen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Kalean aurkitutako pertsonak				
	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
Santa Cruz - Gardea	1	1	0	2	66,7
Landaluze - Larraño	0	0	0	0	0,0
Erdialdea	0	0	0	0	0,0
Lamuza - Ugarte	0	0	0	0	0,0
Lateorro	0	0	0	0	0,0
Areta	1	0	0	1	33,3
Guztira	2	1	0	3	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

21.taula. Portugaleten eginiko kale zenbaketaren emaitzak zonaldeen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Kalean aurkitutako pertsonak				
	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
1. zona	0	0	0	0	0,0
2. zona	0	0	0	0	0,0
3. zona	2	0	0	2	100,0
4. zona	0	0	0	0	0,0
Guztira	2	0	0	2	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014

22.taula. Santurtzin eginiko kale zenbaketaren emaitzak auzoen arabera.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Kalean aurkitutako pertsonak				
	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	Zenbaketa	% bertikala
El Burgo - Txitxarra	2	0	0	2	66,7
Kabiezes	0	0	0	0	0,0
Santa Eulalia - Fontuso	0	0	0	0	0,0
San Juan auzoa - Mamariga - Oiankas	0	0	0	0	0,0
Las viñas - Bullon - Sor Natividad	1	0	0	1	33,3
Guztira	3	0	0	3	100,0

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014